

Zer egin dezaket nik?

Egunero gertatzen dira gertaera izugarriak, hain handiak non ezinean sentiarazten gaituzten: baldintza desesperatuetan heriotza-bidaieiaurre egiten dieten migratzaileak, gerraren eguneroko tragedia bizi duten herriak edo planeta atsekabetzen duten bidegabekeria sozial lazgarriak.

"Zer egin dezaket nik?": baliteke galdera horrek geldiarazi eta indibidualismo etsi batean harrapatzea.

Norberaren kontzientziaren lehen erronka galdera horri erantzutea da. "Zer egin dezaket nik?"

Italian, Lampedusako kostaldeetako arrantzaleek galdera bera egin ziren, eta bertako jende eskuzabalarekin batera benetako giza kateak osatuz, eskua luzatu eta banan-banan, gutxienez bat (eta gero hamar, ehun, mila...), salbatzen saiatzeko Mediterraneo itsasoko olatuetara abandonatutako naufrago desesperatuak. Gerra-eremuetako mugetan (Europar, Afrikan, Asian...) dauden komunitateek galdera bera egin ziren, eta beren etxeetako ateak ireki zituzten ez kalkulu politiko edo ekonomiko batengatik, baizik eta errukizko eta harrerako hautu natural batengatik.

Hain zuzen ere, egoera horietan eguneroko "mirari" txikiak edo handiak ikus daitezke, amets utopikoak ez direnak, etorkizuneko gizartea eraikitzen duten keinuak baizik.

Itxaropena bilatu, ez guregana etorri arte itxaroten egon: hori azpimarratzen du Russel Pearce¹, New Yorkeko *Fordham School of Law*-ko irakasleak. Hizketaldiak egin ditu israeldarren eta palestinarren arteko elkarriketa eta bakea sustatzen duten bi erakundetan –*Parents Circle* eta *Combatants for Peace*–, 2023ko urriaren 7aren ondoren eta ondorengo Gazako gerran kideek harremanak nola mantendu zituzten ulertzeko. Zergatik mantendu zituzten loturak talde horiek eta, are gehiago, gainera indartu? Palestinarrek zein israeldarrek diote euren elkarriketa eraldatzailea izan dela. Maitasunezko elkarriketa omen da berea. Parte-hartzaile palestinar batek honela dio: «Bizi izan dugun eraldaketa oso esperientzia sakratua izan da gutako bakoitzarentzat eta gure arimetan eragin eta lotura sakona ere utzi du. Bestea anaia bihurtzen duen bidaia eta prozesua da». Israeldar batek antzera dio: «Konfiantza eraikitze eta familia batean bihurtzeko egiten dugu lan, urtetan zehar egindako lan sakratu bat bere erronka, dinamika eta zalantza guztiekin». Pearce amaitzen du: judutar jakintsuek «bizitza bat salbatzen baduzu, mundu osoa salbatuko duzu» irakasten dute; Parents Circleko gazte programa zuzentzen duen palestinar batek azaldu zuen: «Pertsona bat aldatzen baduzu, mundu oso bat aldatuko duzu».

Honela zioen Chiara Lubich: «Batasunaren alderdirik agerikoena senidetasuna da. Hori iruditzen zait, hain zuzen ere, biderik egokiena korrontearen aurka joateko (...) askatasuna eta berdintasuna bete-betean lortzeko. (...) Bide baliagarria da gizateriaren patua beren eskuetan dutenentzat, baina baita amentzat ere, mundura elkartasun zatiak daramatzaten boluntarioentzat, pobrezia-guneak ezabatzeko enpresaren irabazien zati bat eskura jartzen dutenentzat eta gerraren aurrean amore ematen ez dutenentzat ere. "Goitik" datorren senidetasunak eta "behetik" datorrenak horrela egingo dute topo bakean»².

¹ R. Pearce: "Dialogo e Pace sostenibili" [Ekklesia- Sentieri di Comunione e Dialogo- 4. zk. urria-abendua 2024]

² C. Lubich, No a la derrota de la paz, «Città Nuova» 24/2003 zk.